

I. SARRERA ETA TRANSIZIOA

1. ESTATUA

EK 1. Artikulua: Espainiako zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko moduan eratzen da eta askatasuna, justizia, berdintasuna (...) defendatzen ditu, bere zuzenbide-antolamenduaren balio nagusitzat harturik.

Gaur egun ES estatu soziala bat, XX. Mendean sortua. Soziala izatea lortu du eta bere gainbeheran dago.

XX/ XXI. Mendea:

- Zuzenbide Estatu Sozial eta demokratikoa.
- Gizarte hitzarmena bai, legeen legea.
- Herriak du subiranotasuna.

Europako konsti guztiak dauzkate estruktura hau. (Estatu Batuak ez, Erresuma Batua common wealth)

XVIII: Estatu absolutua, pertsona batek botere guztia.

1.1. DEFINIZIOAK

1. Konstituzio zuzenbidea

- Arau multzoa da: antolamendu juridikoa (OJ).
- Konstituzioa multzoko eta Estatuko arau nagusia da (XX. Mendea vs XIX. Dokumentu politikoa bakarrik).
- Estatu arau garrantzitsuenak biltzen ditu:
- Estatu konstituzionalistaren 3 iraultzaren ondorio: Ingalaterra, AEB eta Frantzia.


2. Estatuaren kontzeptua

- Gizakia gizartean bizi da: gizarte-ordena sortuz.
- Sistema politikoa ordenaren zati bat da.
- Bertan gizarteak bere antolamendua adosten du.
- Helburua: baliabide mugatuaren banaketa adostea (gatazkak).
- Sis. Pol. Tresnarik adierazgarriena: botere politikoa = indarraren erabilera.

- Boterearen kontzentrazioa eta monopolioa.
- Estatuak instituzionalizatu egiten du boterea.
- Gizabanakoek boterea onartzen dute.
- Estatu= sistema politiko (antolakuntza) historiko bat da.

1.2. GARAPEN HISTORIKOA

AINTZINAKO ERREGIMENETIK ZUZENBIDE- ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKOA (konstituzionalismoa eta harreman ekonomikoak)



1. Estatu modernoaren aurrekariak: Erdi aroko gizarte antolamendua (IX-XIII)

- Antolakuntza feudala/ estamenduzko sistema.
- Nobleen ahalmenak babesten zuten.
- Lurraren eta jendearen jabeak ziren.
- Bakoitzak bere lurraldeetako arauak jartzen zituen (Privis legis, pribilegioetan oinarritutakoa).
- Norberaren zuzenbide egoera baldintzatua: jaiotza eta generoa (salbuespena: beginak XII).
- Gerra gaietarako enperadorearen aginte azpian.
- Salbuespena: hiriak eta hiritarrak.
- Merkatariek zuzenbide-segurtasuna behar zuten.
- Adibidez: Padovako Marsilio (XIV.)

2. Estatu modernoa

Aurretik bestelako antolakuntza motak egon dira: hiri estatuak (Geziako *Polis*-a eta Erromako *Civitas*-a), ekialdeko inperioak (Pertsia, Txina...), Erdi Aroko *poliarkia*...

Nola ematen da Estatu modernoaren agertzearen prozesu historikoa? Estatu modernoaren agerpena (estatu absolutu bezala) eta sustapena XV-XVIII. Mendeen artean ematen da, prozesu historiko luze baten ondorioz. Faktoreak ezberdinak dira.

- Erromatar inperioaren gainbeherak (k.o. 476. Urtea) hutsunea utzi zuen boterean. Ondorioz, poliarkian bezala ezagutzen den fenomenoak agertu zen.
 - Boterearen atomizazioa ematen da.
 - Monarkia ahulak eta jauntxoekin basailutza-harremanak.
- Oso garai gatazkatsua izan zen. Ez zegoen guztien aurrean nagusituko zen boteririk.

Mende askotako prozesua izan zen.

Estatu modernoaz ari garenean boterea bere baitan kontzentratzen duen eta beraz boterearen monopolioa duen estatuaz ari gara.

Ezaugarriak **3 elementu**: herri bat, lurralde bat, subiranotasuna.

Laburbilduz: Estatu modernoaren zuzenbide estatua

Estatu modernoaren estatu absolutuaren forma politikoarekin jaio zen. Gero estatu liberal bezala konfiguratu eta gaur egun estatu sozial bezala agertzen da.

- Azken biak zuzenbide estatua dira, lehena ez.
- Zuzenbide estatua: estatuak muga juridikoak ditu (legalitate printzipioa). Boterea ez da diskrezionala. Aurretik onartutako legeetan oinarritu behar da.

Estatu absolutua -> Estatu liberala -> Estatu soziala (EL eta ES = Zuzenbide estatua, Estatu modernoaren)

EB: Segurtasun juridikoa ez dago, ez dago botere independentziarik (erregeak bote guztia).

IF: Burgeziak onura gehienak.

3. Estatu absolutista

Erresuma Batuan Enrike VII, Frantzia Luis XI, Espainian errege katolikoak.

Autoreak eta ekarpenak:

- XV: Niccolo Machiavelli, printzearen arauen existentzia.
- XVII: Thomas Hobbes, hitzarmenatik (metafisikoa) dator Estatuak.

4. Estatu liberala (XVI)- Zuzenbide estatua

Gizarteko antolakuntza berria: klase sozialak.

Absolutisten gehiegikeriei aurre egiteko tresna giza agertu zen konstituzio-dokumentu politiko bat bakarrik.

3 ezaugarri (FR eragina):

- Legearen nagusitasuna: parlamentuak du zilegitasun demokratiko zuzena.
- Botere banaketa.
- Oinarrizko eskubideen babesa: askatasuna, berdintasuna...

Autoreak eta ekarpenak:

- John Locke (XVII): Benetako hitzarmen bat sortzen du, jabetza pribatua babesteko- konstituzioa.
- Montesquieu (XVII-XVIII): Aginteen banaketa; legegilea, betearazlea eta epaitzekoa.
- Adam Smith (XVIII).

5. Estatu soziala (XX)

- Keynes.
- Hans Kelsen.
 - Konstituzioa lege gorena.
 - Praktikan oinarritua.
 - Konstituzioa beharrezkoa da problemak saihesteko.
 - Konstituzioaren kontrolatzeko auzitegi konstituzionala: Europa osoan hedatu.
 - Zuzenbide zientzia puru bat da.

1.3. ESTATU ANTOLAKETA ERAK

- **Estatu erari dagokiona:** botere subiranoa, lurraldea eta herria antolatzeke moduarekin zerikusia dauka.
- **Gobernu erari dagokiona:** Estatuaren botere edo aginte politikoaren antolaketa zehatza nolakoa den. 3 botereen arteko antolakuntzarekin zerikusia dauka.

3 mota: presidentzialista, parlamentarioa, erdi-presidentzialista.

1. Estatu erak

Estatu unitarioa ala konplexua (federala/ konfederala ala erregionala/ deszentralizatua).

- **Unitarioa:** herria, lurraldea eta boterea homogeneousak, sinpleak eta uniformeak diren estatu mota.
 - Botere zentro bakarra duen estatu mota (adibidez: Frantzia, ez dago deszentralizazio politikorik, legebiltzar autonomikoa edo antzekorik, soilik administratiboa).
- **Konplexua:** Ordenamendu juridiko dibertsifikatua duen estatu mota, sub-estatuz osaturik dagoena.
 - Federala: subiranotasuna egitura federalean sago soilik. Subestatuak ez dira subiranoak.
 - Konfederala: subiranotasuna sub-estatueteriko bakoitzen mantentzen da.
- **Eredu erregionala:** bien artean kokatzen da. Gainera, haien arteko konbinazioak topa: unitario puro, unitario regional.

2. Gobernu erak

Sistema presidentzialista (lehendakari-sistema). Botere legegilearen eta exekutiboaren arteko banaketa zorrotza ematen da.

- Estatuko Presidenteak (estatuburuak) dauka botere exekutiboa.
- Botereen arteko zatiketa garbia bilatzen da.
- Presidenteak eta botere exekutiboak ez dute erantzunkizun politikorik parlamentuaren aurrean (ez dira bere menpeko).
- Botere legegilearen eta presidentearen arteko banaketa zorrotza (ez absolutua).
- Gehiengo politiko ezberdina egon daiteke exekutiboan eta legegilean.

- Eredua: AEB.

Sistema parlamentarioa (parlamentu-sistema). Gobernuak parlamentuaren konfidantza politikoa behar du.

- Herriak parlamentua soilik hautatzen du, eta azken honek gobernu.
- Konfiantzazko lotura tresnak daude: inbestidura, konfidantza kuestioa, zentsura mozioa, parlamentuaren disoluzioa.
- Botere buruzagitzaren eredu ezberdinak daude: monarkia eta errepublika.
- Gobernu eta parlamentuen arteko dialektika ematen da.
- Adibidez, Espainia: Exekutiboa legegilearekiko dependientea da. Parlamentuak hautatzen du gobernu presidentea, ez herritarrek zuzenean.

Sistema erdi-presidentzialista: orain artek bien nahasketa.

- Botere exekutiboa ez dago erakunde bakar baten esku. Estatu buruak eta gobernuak dituzte ahalmen exekutiboak.
- Eredua nagusia Frantzia:
 - Edouard Philippe lehen ministro.
 - Emmanuel Macron estatuburu.

1.4. AUTOREAK

1. Maquiavelo

Idea politikoa

- "Estatua" (Zentzu modernoan).
- Diktadura modernoa.
- Gizartea.
- Gizakia.
- Printzea.

Gobernaria edo printzea

- Indar boteretsua
- Zoriontasuna helburua, hori lortzeko legitimatu: maltzurkeria, izurra eta krudelkeria.

- Nola izan behar du printzeak? boterestuak ahuldu, ez ditu etiketaren printzipioak jarraitzen, intuitiboa, errespetua lortu, indar militarra eta arduratsua.

Estatua

- Zuhurtasuna.
- Desleialtasuna.
- Errealitatea.

Erljioa

- Obedientzia.
- Sumisioa.
- Errespetua.

2. Hobbes

Biografia

- BH (1588-1679).
- Filosofo inglesa: filosofo politikoa.
- Idazle, politologoa, matematikaria, ekonomialaria.
- 30 urteko gerra + ingeles Gerra Zibila.

Pentsakera

- Ateo, filosofia eskolastikoa, Oxford.
- Absolutismoa defendatu baina jainkoa ez.
- Absolutistak vs parlamentu zaleak.

Leviathan

- Pentsakera guztia islatu.
- "Homo homini lupus".
- "Bellum omnium contra omnes": gizakien estatu naturala guztien kontra egoten da.
- Herriak subiranoa aukeratu, hitzarmena, askatasunari uki, babesa + bakea bermatu.

Hitzarmen gauza abstraktua, ez fisikoa, metafisikoa baizik.

Locke: Hobbesen ideiak garatu eta paperan jarri konsituzioa sortzen.

Konstituzioa: herriak eta boterearen arteko hitzarmena.

3. Locke

Testuinguru historikoa

XVII. mendean Eskoziako erregeak Irlanda eta Ingalaterrako koroak beregain hartu zituen hiru erreinuak bateratuz: "Unión de las coronas."

Erreinu bakoitzak bere independentzia politikoa, lege egitura eta erlijioa mantendu zituen, eta horrek hiru erreinuen arteko gerrak piztu zituen.

Hiru Erreinuen arteko eztabaida nagusiak:

- Arazo erlijiosoak: erlijioa nork erabaki? Erregeak ala herritar bakoitzak? Locke: Gizakiak bere buruaren jabe izateko eskubidea aldarrikatu.
- Arazo zibilak: noraino mugatu erregearen botere parlamentuan? Locke: botere-banaketa proposatu (legegilea eta exekutiboa).

Lockerren pentsamenduaren oinarriak

Gizaki guztiak izatez aske eta berdinak dira, eta berezko eskubideak dituzte: bizitza, askatasuna eta jabegoa.

Gizabanakoaren eskubide lehentasuna (kolektiboen gainetik)

Eskubide horiek zaintzeko adostasunean oinarritutako gobernuak: ESTATUA

Ekarpen nagusiak:

- Estatu liberala.
- Jabetzaren teoria.

Estatu Liberala

Liberalismo klasikoaren aitatzat jotzen da.

Estatuaren helburua: eskubide naturalak (bizitza, askatasuna, jabegoa) defendatzea.

Boterea ez da absolutua eta giza eskubideak defendatu behar ditu. Estatuari gizabanakoen arteko liskarretan erabakiak hartzeko funtzioa eman.

Estatua antolatzeko botereen banaketa:

- Botere legegilea: arauak sortu.
- Botere exekutiboa: legea gauzatu, aplikatu.
- Botere federatiboa: Harremanak beste estatuekin.
- Lockentzat botere judizala ez zen independentea, exekutiboaren barne zegoen.

Jabetzaren teoria

Gizaki guztiek bere buruaren jabe izateko eskubidea dute. Bakoitzaren lana norberarena da.

Mugak

- **Erabilgarritasunaren muga:** kontsumitu edo erabili daitekeena bakarrik da posible berenganatzea.
- **Besteentzat nahikoa uztearen muga:** denek dute bizitzeko eskubidea.
- **Lanaren muga:** gizaki bakoitzak bere lan pertsonalarekin berenganatu dezakeenak mugatzen du gabezia.

Mugak gainditzea:

- **Aberastasunaren pilaketa:** jabetza pribaturako eskubidea mugagabea da, metatze kapitalista berezko eskubidea da diruaren bidez.
- **Produktibitatea:** lurraren jabetza pribatuak hamar aldiz biderkatzen du produktibitatea. Produktibitate hezkuntzak konpentsatu eta justifikatu egiten du besteentzat lurrik ez uztea.
- **Lana saltzea:** lanaren muga gainditu alokairuzko erlazioaren bidez. Batek beste baten lan gaitasuna berengantzea bidezko bihurtzen da.

4. Montesquieu

Testuinguru historikoa

1689an, bere jaiotze urtean, , Ingalaterran monarkia parlamentarioa ezarri zen eta Guillermo III.a jarri zen agintean.

Frantzia bitartean, monarkia absolutua zegoen. Luis XIV.a Frantzia eta Nafarroako erregea izan zen 1643 eta 1715 urteen artean.

1729tik 1732ra Ingalaterrara bizitzera joan zen eta bertan garatu zuen bere teoria politikoa, botereak banatzeko.

Ideia nagusia: botere banaketa

John Locke filosofo ingelesaren ideiak garatu zituen botere banaketari buruz. Hirutan banatu zituen botereak:

- **Legegilea (parlamentua).** Legeak onartu, ezeztatu, aldatu, zergak jarri... Beti hiritarren iritzia kontuan harturik.
- **Betearazlea (erregea).** Legeak betetzen direla egiaztatu.
- **Judiziala (tribunalak).** Legeak ondo betetzen diren ala ez epaitu

Erresuma Batuak duen politika sistema erreferentziatza hartu zuen.

Botere guztiak ezin ziren esku bakar batean egon, botere batek beste botereak orekatzen ditu.

5. Keynes

Testuinguru historikoa

- Inbertsore askoren hondamendia.
- Bankuen porrota.
- 30.hamarkadan, kraxak ondorio politiko, sozial eta ekonomikoak izan zituen.
- Langabezia igo zen.
- Ultranzionalismoa eta faxismo autoritarioa areagotu ziren

Funtsezko ideiak

- Britainiar ekonomialaria, keynesianismoa idatzi zuena. Eskari agregatua aztertu.
- Teoriaren helburua: 29ko krisiari irtenbidea aurkitzea.
- Liberala zen eta estatua ekoizpen baliabideen jabe izan behar ez zela pentsatzen zuen.
- Krisi egoeretan estatuak ekonomian parte-hartzearen alde agertu zen.
- Esku-hartzearen aldeko apustua da, doktrina liberal erradikalaren aurkako eraso.
- Krisi egoeretan estatuak inbertitu egin behar zuela zioen.

- Eskaintzak ez du bere eskari propioa sortzen baieztatzen , berezko eskaria eroslearen diru-sarrerara mugatzen zela.
- Gaindikina garapen ekonomiko baxu edota krisi ekonomiko merkatuko arazoak konpontzeko beharrezkoa da Estatuaren esku hartzea.
- Makroekonomiaren babeslea da, ikuspegi panoramiko bat eskaintzen baitu.

Keynesen pentsaera ekonomikoa

Keynesek gogo biziz kritikatu zituen garaiko gobernuak hartutako erabakiak.

1930. urtean finantzia eta industria arazoez arduratzen den Mac Millan batzordearen kidea hautatu eta 1929ko krakaren ondoren hasi ziren aintzat hartzen Keynesen teoriak.

Keynesen iritziz, gobernuak duten parte-hartzea areagotu behar litzateke krisialdian, ekonomia sustatzeko.

Keynesianismoa, zer da?

- Estatuaren esku sartzea bultzatu merkatuak behar bezala funtzionatzen ez duenean.
- Politika fiskal zalbalkorra.
 - Politika sozial eta industrial eskuzabal eta inbertsio publiko handiekin.
 - "Laissez faire" teorien aurka.
- Inbertsio publikoak.
 - Enpresei lana eta langabezia murriztean ekonomia suspertzen da.
 - Kontsumoa areagotzeko, langileen soldata igo eta langabeei diru laguntzak eman behar zaie.
- Bigarren Mundu Gerraren ondotik ongizate estatuaren jatorria.

Ideologiaren eragina- zientzia diskurtsoak, filosofia, erlijio, zuzenbidea..			
Politikan Agintearen antolamendua	Ekonomian Ek-stmak edo ekoizpen erak	Gizartean Gizarte-antolamendu sentsu zabalean	
Alor Publikoa Herri-agintearen jardunerako harremanak	Alor Pribatua (publ) Ekonomia-harremanak	Alor Probatua (publ) Gizaki eta gizataldeen arteko harremanak	Alor Pribatua (prib, etxekoa) Familia-harremana
Hiriak/ errepublika/ inperioa <i>Pater familias</i> Hierarkia printzipioa	Esklabotza Jabeak/ jabeagoa	Gizarte geruzatua, hierarkia printzipioa	Eskontza <i>Pater familias</i> Hierarkia printzipioa
Feudoak/ erreinuak Juantxoak/ errege erreginak Hierarkia printzipioa	Feudalismoa Jabeak/ ez jabeak		
Estatua (Monarkia absolutoa) Hierarkia printzipioa	Merkantilismoa Jabeak/ ez jabeak		
Zuzenbide estatua (<i>Hiritarra, gizonaren errolda sufragioa</i>) Berdintasun printzipioa (formala)	Kapitalismoa Gizar jabeak berdinak, era formalean Askatasun eta berdintasun printzipioak		
Estatu demokratikoa (Hiritarra, gizarren sufragioa) berdintasun printzipioa (formala)			
Estatu soziala (Hiritarra, gizemeen eta gizarren sufragio) Berdintasun printzipioa (materiala)	Kapitalismoa Gizar eta gizeme jabeak berdinak, era formalean eta berdintasun printzipioak	Gizarte ez geruzatua Era formalean, pertsdonak osatzen dute Berdintasun printzipioa (formala/ materiala) Askatasun printzipioa	Ezkontza Ezkontideak Berdintasun printzipioa (formala)

2. KONSTITUZIOA

2.1. KONSTITUZIOA ARAU JURIDIKO BEZALA

- XX. mende hasieran indartu ziren konstituzioak, itun konstituzionalari *arau-izaera* eman zitzaionean.
- Konstituzioei *arau-izaera* emateari juridiko bilakatzea esaten zaio.
- Konstituzioa *legetzat* ulertzen hasi ziren.
- Oinarrizko legea edo legeen legea lege guztien gainetik zegoen legea.

2.2. LEGEEN LEGEA



2.3. OINARRIZKO LEGEA: KONSTITUZIOA (5 IDEAIA)

1. Estatu botereak antolatzeko eta mugatzeko forma juridikoa (ez bakarra, idatzizko konstituziorik gabeko herrialdeak baitaude).
2. Estatu botereen **iturri** da.
3. **Berdintasun printzipioak** garrantzi zentrala (berdintasun formala eta materiala).
4. **Hitzarmen sozialaren** adierazpena. Zertarako? Segurtasun politikoa eta juridikoa lortzeko.
5. **Estatu konstituzionala:** botere politikoa antolatzeko sortzen den egitura juridiko politikoa.

2.4. TIPOLOGIA (4)

- **Arrazional-araukorra:** *concepto racional normativo de la Constitución.*
- **Tradizionalista-historikoa:** konstituzioa herri baten tradizioen emaitza izango da.
- **Soziologiko-marxista:** Konstituzioa gizartearen izate errearen irudia da. Nolako jendartea, halako konstituzioa.
- **Kontzepzio autoritarioa:** nagusitasun egoeran dagoenak ezarritako erabaki unilaterala. Diktadura.

Arrazional-araukorra

Concepto racional normativo de la Constitución (guretzako garrantzitsuen)

Bi ezaugarri:

- Arau sistema bat da: konstituzio idatzia, dokumentu bakarrena, subiranotasun despertsionalizatua, gizarte hitzarmenaren ondorioa, printzipio arrazionaletan oinarritua, araukorra, eta zurruna erreformatzeko.
- Estatu liberalarekin bat egiten duen ikuskera: eskubide indibidualen bermea eta botereen mugaketa.

2.5. EGITURA

Hiru zati nagusi:

- **Atal ideologikoa / hitzaurrea:** Konstituzioaren helburuak jasotzen dira (baloreak, subiranotasunaren jabea...).
- **Atal dogmatikoa:** baloreak, printzipio konstituzionalak eta eskubide zein askatasunak. (nahiko teorikoa)
- **Atal organikoa:** estatu botereen antolaketa.
 - Botere organoak ezartzeko eta arautzeko arauak.
 - Estatuaren erakundeen jarduerak definitzen ditu.

2.6. KONTUAN IZATEKO ELEMENTUAK (3)

1. Interpretazioa

Arau juridiko guztiak (Konstituzionalak ere) interpretatzen dira.

Legea eta konstituzioa interpretatu:

- Epailleak legea interpretatzen du eskuarteak duen auzia konpontzeko.
- Auzitegi konstituzionalak legegileak egindako konstituzioaren interpretazioa kontrolatzen du.
Konstituzionaltasun kontrola.

I. Juridiko/ konstituzionalaren erregelak (berdinak)

- Hitzez-hitzeko interpretazioa.
- Sistematikoa: alboko arauak aintzat hartuz, sistema.
- Historikoa: arauaren jatorriari erreparatzen diona.
- Teleologikoa: helburuari erreparatzen diona.
- Soziologiko-ebolutiboa: errealitate sozialaren aldaketari erreparatzen diona.

2. Erreforma

- Erreforma arrunta ala partziala (167. Artikulua).
- Erabateko berrikuspena (168. Artikulua).

Erreforma arrunta ala partziala (167. Artikulua)

1. Konstituzioa aldatzeko proiektuak Ganbara bakoitzeko bosteko hiruk onartu beharko ditu. Biotan akordiorik ez baldin bada, lortzeko ahaleginduko da Diputatu eta Senatoreen batzorde konposaketa berdina sortuz, beronek testu bat aurkeztuko du biltzarreak eta Senatuek botatuko dutena.
2. Goiko apartatuko prozeduraz onartzea ez baldin bada lortzen, eta testuak Senatuko gehiengo absolutotik baiezko botua lortu izan baldin badu, biltzarrek hirutik bik aldatzea onar dezake.
3. Gorte Orokorrek aldatzea onartuz haren berretsipenerako erreferendumera mendeko da honela eskatzen denean, hura onartzeko hurrengo hamabost egun barruan, edozein Ganbarako kideen hamargarren zatia.

Prozedura berezia noiz?

- Konstituzio osoa berritzen denean.
- Hurrengo at

Erabateko berrikuspena (168. Artikulua)

1. Konstituzioaren berrikuste osoa edo zatikakoa proposatzen denean, aurreko Titulua, bigarren kapitulua, I. Tituluko lehen Saila, edo II. Titulua ikutuz, printzipioaren

onartzera joko da Ganbara bakoitzeko hirutik bi, eta Gorteen berehalaxeko deuseztatzen.

2. Hautaturiko Ganberek berretsi beharko dute erabakia eta testu Kostituzional berriaren estudioetan ihardun, hau Ganbara biotako hirutik bik onartua izan beharko du.
3. Gorte Orokorrek aldatzea onartuz, honen berretsipenerako erreferendumerara mendu beharko da.

Noiz?

- Konstituzio osoa berritzen denean.
- Hurrengo atalak ukitzen direnean:
 - Atariko titulua (EK 1-9 art).
 - I. Tituluko II Kapituluaren lehen atala (EK 15-29 art): oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak.
 - II. Titulua (EK 56-65): Koroa.

Eraldaketa arrunta	Eraldaketa berezia
<p>Bi ganbaretan 3/5ak lortzen ez denean:</p> <p>1. Batzorde mistora;</p> <p>2. Edo senatuan EG + kongresuan 2/3</p> <p>Erreferenduma, hautazkoa, baina loteslea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2/3ak ganbara bietan. • Gorte disolbaketa + hauteskundeak eta gorte berrien 2/3ak • Erreferenduma: derrigorrezkoa eta loteslea

3. Kontrola

AEBetako sistema (difusoa)

- 1787ko Konstituzioak ez zuen ezer esaten gaiari buruz, baina eztabaida konstituzionalean, legeak konstituzionalki kontrolatzeko beharra azpimarratu zen.
- Marbury vs Madison sententzia. Lege batek konstituzioaren aurka egiten badu, inplikatu egingo da.
- Kontrol difusoa:
 - Edozein epailek egiten du.
 - Jurisprudentzia sortzen du.

Lege konstituzionalen kontrola Europa (XX. Mendeko sistema konzentratua): Konstituzio Auzitegia

3. 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOA: AURKARIAK ETA HAREN EGITEA

3.1. HISTORIA KONSTITUZIONALAREN EZAUGARRIAK

Espaniar estatu historia konstituzionalaren ezaugarriak:

- Konstituzionalismora goiz batu zen.
- Ezegonkortasuna: 8 konstituzio + proiektu batzuk.
- Izaera/ eragin eratorria (salbuespena: kontserbadoreak).
- Hausturaz ezarria, ez erreformaz.
- Gobernu era: monarkikoa (salbuespena: 1. Errepublika eta II. Errepublika).
- Botere judizial ahula.
- Askatasun eta eskubideen berme ahula.
- Zentralizazio formala eta ondoriozko nazionalismoaren agerpena. (2. Guda Karlista: 1833-1838 eta 1872-1876).

Konstituzioaren urtea	Subiranotasuna	Ideologia-mota	Aginteen arteko harremanak	Erreformatzeko era	Konstituzioaren autorea	Indarraldia
¹ 1812	Nazio	aurrerazale	Aginte banaketa onartzen du	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	5-6 urte baina ez jarraian
1834ko Estatutua	Errege	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Errege, Dekretu beten bidez	3 urte
1837	Nazio	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	malgua	Gorte konstituziogileak	8 urte
1845	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	1837koaren erreforma	24 urte
1869	Nazio	aurrerazale	Aginteen banaketa	zurruna	Gorte konstituziogileak	4 urte
1876	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Gorte konstituziogileak	47 urte
1931	Herri	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	zurruna	Gorte konstituziogileak	8 urte
Oinarrizko legeak 1938-67	Nazio (teorian) Estatuburua (praktikan)	kontserbadore	Aginte bakarra	Zurrun-zurrunak	Franco Jenerala	37 urte
Erreforma politikarako legea 1976						
1978	Herri-nazio espainiarra-	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	

3.2. AROAK

I. Antzinako erregimenetik > estatu liberalerako trantsiziora (1808-1833)

(1808: Baionako Estatutua: José Bonapartek emandako gutuna).

1812: Kadizeko Konstituzioa (6 urte indarrean, 1820-1823, 1836-1837)

- Absolutismoaren kontra (Fernando VII, 1814 itzuli zen).
- Parlamentu unikamerala zuen.
- 3 printzipio:
 - Subiranotasun nazionala.
 - Botere banaketa: Gobernu, parlamentu eta epaiketak
 - Legegilea: gorteak erregearekin (15. Art).
 - Betearazlea: erregea (16. Art).
 - Eremu penal eta zibilean aplikatzea: epaileak.
 - Ordezkaritza:
 - Herritarrek.
 - Funtzioa, ez eskubide.
 - Sufragio zentsitarioa.

II. Aro Isabeldarra (1834-1868): 3 konstituzio

1833: Guda zibila- Karlistak vs Liberalak.

Erregina gobernadora: Maria kristina de Borbon alarguna.

- 1838ko Estatutu erreala:
 - Izaera kontserbadorea.
 - Gutuna zen. Monarkak organo batzuei boterea eman.
 - Laburra eta osotasunik gabea. Soilik 50 artikulua.
 - Subiranotasun nazionalik ez. Erregeak+ gorteekin (soberanía compartida).
 - Botere banaketa ez.
 - Sufragioa: murriztua.
- 1837ko Konstituzioa:
 - Izaera: liberala.
 - Luzera ertainekoa. 77 artikulua.
 - Eskubide+ askatasunak eta botereen antolakuntza.
 - Ez zuen erreformarako mekanismorik.

- Parlamentu bikamerala ezartzen zuen. Kongresua eta senatua.
 - Kongresuak modu zuzenean hautatuak.
 - Senatukoak erregeak hautatzen zituen, probintziek proposatzen zituzten zerrendetatik.
 - Erregeak legeak betatzeko ahalmena zuen-
 - Eskubideen katalogo bat jasotzen duen-
 - 8 urtez egon zen indarrean.
- Lehen Guda karlista (1833-1839): autogobernua, aduana Ebron, armadari ezetza, lurren jabetza komunala.
- 1845eko Konstituzioa:
 - Izaera: kontserbadorea.
 - 1844: Isabel erreginak gorteak inauguratzean, oroitarazi zien hauen misioa konstituzioa erreformatzea zela.
 - Subiranotasun nazionala ezabatu (partekatutako subiranotasuna).
 - 1856an ordezkaturia izan behar zen baina Go9rte Konstituziogileak desegin era 1845ko konstituzioa indarrean jarri zen, Akta Osagarri batekin (*Acta Adicional*).

III. Seiurteko iraultzailea (1868-1874)

- 1868: Iraultza liberala eta seiurteko demokratikoa.
 - Altxamendu militar aurrerakoia.
 - Gorte Konstituziogileak deitu ziren eta 1869ko Konstituzioa onartu zuten.
 - 1869ko Konstituzioa
 - Estatu demokratiko liberal baten saiakera.
 - Konstituzionalismo liberal aurrerakoiaren parte.
 - Eskubideak modu zabalean erregulatuz.
 - Erljio askatasuna (*libertad de cultos*).
 - Sufragio unibertsal baina mediatua, ez zuzena.
 - Subiranotasun nazionala.
- (1873-1974). I. errepublikaren proklamazioa + "konstituzio federaleko" proiektua -> Altxamendu militarra.

IV. Berrerazpena (1874-1931)

Faseak:

- Alfonso XIIren (borboia) erregetza (1876-1885).
- Maria Cristina de Austria erreginaordea (1886-1901).
- Alfontso XIIIren erregetza (1902-1823).
- Primo de Riveraren diktadura (1923-1929).

Urte batzuk deliberatzen eman eta gero, Canovas kontserbadoreak sustatuta, 1876ko konstituzioa onartu zen.

- Canovas alderdi kontserbadorea.
- Sagasta alderdi liberala.

1876ko konstituzioa: Liberal-kontserbadorea. Gehien iraun duena espainiar konstituzionalismo liberalean. Zergatik? Bi alderdi nagusien arteko hitzarmenean.

- Monarkak eta Gorteek adostua.
- Erreformatzeko malgua da.
- Erregeak (inviolable) botere zabalak: Gorteak deitu eta desegiteko botere exekutiboa zuen, armadaren buru.
- Sistema politiko bipartidista (txandakatuz).
- Erlijio katolikoa ezartzen zuen estatukoa bezala, eta erlijio askatasuna ezabatuz.
- Legegile bikamerala:
 - Kongresua; sufragio murriztuaz hautaturik.
 - Senatua: erregeak izendatua batzuk, hautatuak besteak...
Canovas hil eta gero (1897): Ezegonkortasuna.
Primo de Riverak jeneralak, estatu kolpea (1923): diktadura.
Alfonso XIII onartua, exiliatu.

V. 1981ko Errepublika demokratikoa

- Jabetza eskubidea, amnistia politikoa, gizarte eta inprenta delituentzat; hauteskunde legea moldatu zen.
- Egoera politikoa oso zaila: lurralde-antolaketa, eraldaketa militarra, nekazaritza-eraldaketa eta erlijio arazoa.
- 1933 hauteskundeak zentro-eskuinak irabazi. 1936 sartu zen indarrean Frente Popularrak irabazi.
- Prozesu konstituziogilea:

- Batzorde batek prestatutako proiektua.
- Eztabaida nagusiak: lurralde, gizarte eta erlijio gaiak.
- 1931ko abenduaren 9an onartu zen Konstituzioa.

Konstituzioa:

- Legegintza teknika egokia, luzera ertaina, eragina:
 - Wimarreko Konstituzioaren (1919) parlamentu- sistema.
 - Austriako Konstituzioarena (1920) juridizkio konstituzionalean.
 - Mexikoko Konstituzioaren eragina (Queretaro, 1917) ekonomia eta gizarte eskubideei dagokionez.
- Ezaugarriak:
 - Herri subiranotasuna, sufragio orokorra.
 - Zuzeneko demokrazia.
 - Estatu "integrala": erregio eta udalerrien autonomian oinarritua. Gorte unikameralak.
 - Eskubideak eta bermeak: indibidualak eta kolektiboak + eskubide ekonomikoa, sozial eta kulturalak.
 - Estatuak ez du erlijio ofizialik.
 - Konstituzioaren arau-maila.
 - Konstituzio Bermeen Auzitegia.

VI. Sistema politiko frankista

- Gida Zibilaren ostean osatutako erregimen politikoa.
- Ezaugarri nagusia: kaudillajea (caudillo= buruzagia). Franko jeneralak botere osoa zeukan.
- Ez dago Konstituziorik. Oinarrizko legeak bai (*Leyes Fundamentales*).
- Sistema politikoaren egitura:
 - **Estatu buruzagitza:** gobernuburua hautatzen zuen, legeak betatu zitzakeen, erreferenduma deitu...
 - **Gobernua:** presidentea, Ministro Kontseilua eta batzorde delegatuek osatzen zuten.
 - **Gorteak:** movimiento Nacional (alderdi bakarra); Organización SIndical (bakarra); familia eta udalerrietako ordezkariak.
 - **Movimiento Nacional:** erregimena mantentzen zuen alderdi bakarra.

- Oinarrizko eskubideen eta botere banaketaren ukapena. Errepresio basatia + askatasunik eza.

Oinarrizko legeak (Leyes Fundamentales):

- **1939:** Lanaren Forua: bizi-ekonomiko-laborala arautzen.
- **1942:** Gorte Espagnolaren legea, legeak prestatzeko ganbara.
- **1945:** Espagnolaren Forua: eskubide eta betebeharrak. Errekonozimendu formal hutsa, praktikan sis. Autoritarioa.
- **1945:** Erreferendum legea: Nazioari galdetzea ahalbidetu.
- **1947:** Estatu buruzagitzaren oinordetzarako legea, Espainia erresuma bezala konstituitu zuena, eta Francori estatu-buruzagitza ematen zion. Erreferendunez.
- **1958:** Mugimenduaren Oinarrizko Printzipioen legea, estatuburuak promulgatua Gorteetan.
- **1967:** Estatuko Lege Organikoa, aurreko lege batzuk aldatu eta konstituzio funtzioa (Erreferendum).

3.3. DIKTADURATIK EGUNGO SISTEMARA TRANTSISIOA

Frankismoa krisian.

Dikotomia nagusia: erreforma ala haustura: Halere bazegoen eskuinaren barruan jarraikortasunaren aldekoak.

Franco: "Lo dejo todo atado y bien atado".

Horren aurretik, frankismoaren lehen urteetan Espainiar estatua ia ia autarkia bat izan zen.

Bi momentu: trantsizio -aurea eta trantsizioa bera.

1. Trantsizio- aurea

Sistemaren barruan gauzatu zen. Prestakuntza:

- 60 hamarkadan aldaketa ekonomikoak, aktibazioa eta liberalizazioa. Desarrollismoa. Gobernuan teknokratak. Turismoaren gorakada. Herrietatik hirietarako migrazioa. Txokea ekonomia liberalizatuaren eta gogor kontrolatutako sistema politikoaren artean.

- Saiakerak erregimenetik Europar Batasunari atxikitzeko. Ez da lortzen demokrazia faltagatik, baina bai lortzen da komertzioaren liberalizaziorako tratatu bat.
- 1973-75 gertakariak: krisiaren areagotzea
 - Carrero Blancoren heriotza. Arias Navarro izendatzen du Francok gobernuko
 - . Nahiko kontinuitista.
 - Francoren heriotza...
 - Sistema ezin zen bere horretan mantendu.

2. Transizioa bera

Lehen fasea: 1975eko abendutik 1976ko ekainera

- Juan Carlos Borboikoa tronura, estatuburu bezala, Francok izendatua.
- Arias Navarrok gobernuja jarraitzen du (eta Fraga, Garrigues...). Demokrazia "a la española" nahi zuen; kontinuitismoa.
- Biltzeko eskubidearen legea eta Asoziazio politikorako eskubidearen legeak onartzen dira partzialki.

Bigarren fasea: 1976ko uztaila-1978ko abendua

- 1975/7: Arias Navarrok dimititu => Adolfo Suarez presidentea.
*Movimiento Nacional*eko idazkari nagusi izandakoa
 - Suarez: trantsizioa egiteko "legetik legera, legearen bidez".
 - Indarrean zeuden legeak erreformatu, haustura gabe.
 - Erreforma politikorako legea gorte frankistetan onartua -> herritarrek berretsia. Oinarrizko legeen erreforma.
 - Alderdi politikoen legeztatena, Alderdi Komunista barne.
 - 1977/6 hauteskunde orokorrak: Kongresua eta Senatua.
 - Bigarren fase honetan kontzeptu klabe bat: "Konsensoa".
 - 1977/10: Moncloako itunak, maila politiko eta ekonomikoan, trantsizioa egiteko

Gorte konstituziogileen hauteskundeak 1977/6/15

Alderdia	Botoak	Ehunekoa	Diputatuak	Ehunekoa	Gizalaba/Gizaseme
UCD	6.220.899	34,74	165	47,14	7/158
PSOE/PSC	5.229.460	29,21	118	33,71	10/108
PCE/PSUC	1.655.704	9,24	20	5,71	3/17
AP	1.460.870	8,21	16	4,57	1/15
PSP/FPS	799.376	4,46	6	1,71	0/6
Pacte dem. Per Cat.	498.744	2,78	11	3,14	0/11
EAJ/PNV	286.540	1,60	8	2,28	0/8
Uni. cent. Y DC Cat.	167.554	0,93	2	0,57	0/2
Esquerra Cat.	134.953	0,75	1	0,28	0/1
Euskadiko Eskerra	58.377	0,32	1	0,28	0/1
C. ind. Aragón	37.641	0,21	1	0,28	0/1
C. ind. Castello	30.107	0,16	1	0,28	0/1
Guztira			350		21/329

3. Erreforma polititikorako legea:

- Trantsizioaren instrumentu juridiko nagusia.
- Formalki, oinarrizko lege bat zen, 8.:
 - Helburua: haustura bat ez irudikatzea erregimenarekin,
 - Materialki: zubi-lege bat izan zen, sistemaz pasatzeko.
- 1976/12/15; Oinarrizko legeak bezala tramitatu. Erreferendumean onartuta.
- Artikulu gutxi: gaiak:
 - Erregimen berriaren printzipioak:
 - Herri subiranotasuna.
 - Oinarrizko eskubide bortxaekin.
 - Botere banaketa gutxieneko.
 - Gorte berriak, Kongresua eta Senatua.
 - Prozesu konstituziogilearen oinarria.
 - 1978/12/6 Erreferenduma:
 - Estatua: partehartze: %67 abs%33
 - Baiezko %88, ezezko %7,89
 - Nafarroa: %66
 - Baiezko 76,4
 - Gipuzkoa: parte-hartze: %43
 - Baiezko: %64
 - Bizkaia: parte-hartze %42
 - Baiezko: %73

- Araba: %59

Marko juridikoan aldaketak:

- Adierazpen, greba eta sindikatzeko askatasuna.
- Alderdien legeztapen progresiboa.
 - Edonola ere lehen hauteskundeak ez ziren berdintasunean ospatu.
- Hauteskunde legea.
- 1976/7: Amnistia.
- 1977/5: Don Juanek, Juan Carlosen alde eskubide dinastikoak.

4. 1978ko Konstituzioa

- Formalki: hitzaurrea, titulu preliminarra, titulu dogmatiko bat (lehena) eta beste 9 organiko (II-X). 169 artikulua.
- 2 MG konstituzionalismo demokratiko eta sozialaren parte (Portugal, Grezia, Espainia).
- Jatorrizko konstituzioa da? Batzuk baietz diote, aurreko erregimenarekin haustura egon zelako.
 - "Lo dejo todo atado y bien atado". (Franco)
 - Haustura egon zen?
- Sinkretikoa: iturri askotatik edandakoa (Frantzia, Italia, Alemania, Escandinavia...)
- Demokrazia ordezkatzaileria (zuzenaren aurrean), alderdien bidez.
- Bermatzaileria da, berme bikoitzekin.
 - Eskubide eta askatasunen berme judiziala.
 - Babes elegitea auzitegi konstituzionalaren aurrean.
- Zurruna da. Moldatzeko zaila.
- Eredu ekonomikoa: Merkatu askatasunean (38 art.).
- Eredu territorialean eredu "irekia".
- "Irekia" ordenamendu supranazionalei (93 art).
- Proiektu politikoak demokratikoki garatzea, pluralismo politikoan oinarriturik (adibidez 155 art.?)
- Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa.
- Erregea: estatuaren batasun sinbolo.